



**640/2022 EBAZPENA, maiatzaren 2koa, Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakao ESiko Barne Medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren**

#### AURREKARIAK

Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentearen otsailaren 15eko 215/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Barrualde-Galdakao ESiko Barne-Medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko martxoaren 14ko EHAA 52. zk. eta 2022ko martxoaren 19ko BOE 67. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko apirilaren 8an amaitu zen.

Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentearen apirilaren 11eko 566/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barne-Medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.



Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakaon, 2022ko maiatzaren 2a



Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentea,  
**Jon Guajardo Remacha**

**I. ERANSKINA**

**BARRUALDE-GALDAKAO ESI-KO BARNE-MEDIKUNTZAKO ZERBITZU  
SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

**ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Fátima MENDOZA GUTIERREZ

Baztertuak:

- Inork ez



**II. ERANSKINA**

**BARRUALDE-GALDAKAO ESI-KO BARNE-MEDIKUNTZAKO ZERBITZU  
SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

**BALORAZIO BATZORDEA**

**Batzordeburua**

Titularra: DAVID CANTERO GONZÁLEZ jn

Ordezkoa: AMAIA ETXEBARRIA ALTUNA and.

**Lehenengo batzordekidea**

Titularra: LORENZO RODRIGUEZ GONZÁLEZ jn.

Ordezkoa: ANA IRUARRIZAGA DíEZ and.

**Bigarren batzordekidea**

Titularra: MARIA PILAR BERNARDO GALAN and.

Ordezkoa: FRANCISCO JAVIER FRESCO BENITO and.

**Hirugarren batzordekidea**

Titularra: JAVIER ZUBIZARRETA GARCÍA jn.

Ordezkoa: RAFAEL SILVARIÑO FERNANDEZ jn.

**Laugarren batzordekidea (IVAPek PROPOSATUA)**

Titularra: MARIA SOLEDAD AZCONA LOSADA and.

Ordezkoa: DAVID AVELLANAL LEGARDA jn.

**Idazkaria:**

Titularra: AMAYA DE ALLENDE ACHALANDABASO and.

Ordezkoa: MAITE YEREGUI HUARTE and.